

JARDUERAK

Gure produktua nahiz eta kanpoko enpresa batek ekoiztu, gu produktua saltzearen arduradunak izango gara. Hau da, gure funtsezko jarduera (audifonoak ekoiztea) kanpoko enpresa batek egin behar duen arren, aurreikusita ez dauden arazoak konpontzeko gai izan beharko ginateke. Horrez gain, pinganilloak erosteko plataforma, hau da, webgunea, kontrolpean edukitzeko gai izan beharko ginateke.



Beraz, esango genuke jarduerak bi multzotan banatuko genituzkela:


Alde batetik, enpresaren barruan egin daitezkeen zereginak: Lehen esan bezala, bezeroekin harremanetan jartzea, zeregin nagusietako bat iruditzen zaigu, web orria martxan jarri eta ondo funtzionatzen duela egiaztatuz.

Bestalde, kanpoko enpresa baten esku jarriko dugun zeregina: Kasu honetan, *Beltone* izeneko enpresa estatubatuarrari, gure audifonoak ekoiztea eskatuko genioke, hauek, zeregin nagusi bat dute gure enpresaren barruan, hauek baitira produktua ekoiztuko dutenak.

Funtsezko jarduerari dagokionez, lehenik, ekoizpenean oinarritu behar gara. Produktua diseinatzea gure esku egongo da, ekoiztea, aldiz, *Beltone* enpresaren esku. Entregatzeari dagokionez, gure bezeroek, bi aukera edukiko lituzkete. Alde batetik, web orri baten bidez erosteko aukera izango dutenez, transportatzaile batzuk kontratatu



beharko genituzte, bezeroei produktua etxera eraman ahal izateko zerbitzua eskaintzeko; Correos-eko langileak esaterako. Bestalde, Madrilgo zentroan kokatutako denda fisikoaren bidez, bezeroek gure produktua erosteko aukera izango dutenez, langile batzuk kontratatu beharko genituzte, lan-zerbitzua eskaintzeko.



Beste funtsezko jarduera bat, arazoak konpontzea izango litzateke: guk diseinatutako web orriak, erreklamazio kontaktu bat izango du, beraz, audifonoekin arazoren bat izanez gero, bezeroek gurekin harremanetan jartzeko aukera zuzena izango lukete, telefono zenbaki baten bidez.

Azkenik, plataforma edo sareko jardueraren zerbitzua dago, lehen esan bezala, web orria guk kudeatuko dugunez,

bertako jarduerak ere gure esku egongo liratezke, hobekuntzak egiteko edota besterik gabe, stock-a handitu nahi izanez gero.